

LITERATURA UNIBERTSALA

EDITH WHARTON

---

# Ethan Frome

*Miren Arratibel & Aintzane Atela*

Edith Wharton  
**Ethan Frome**

*Miren Arratibel & Aintzane Atela*  
*Itzultzaileak*

Jatorrizko izenburua eta urtea:

*Ethan Frome*, 1911

1. argitalpena: 2022ko irailean.

© Azaleko margolanarena: 2022, Alain Urrutia

© Itzulpenarena: 2022, Miren Arratibel eta Aintzane Atela

© Hitzaurrearena: 2022, Miren Arratibel eta Aintzane Atela

© Argitalpen honena: 2022, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena S.A.

ISBN: 978-84-9109-826-3

LG: D 1030-2022

*Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.*

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.*



---

EDITH WHARTON

1862-1937

## HITZAURREA

Edith Wharton, *Edith* Newbold Jones jaiotza izenez, familia dirudun ikasi batean sortu zen, eta heziketa sendoa jaso zuen, sorterrian nahiz Europan, maiz bidaiatu baitzen hara txikitatik. Hogeita hiru urte zituela, Edgard Robbins Wharton bankariarekin ezkondu, eta haren abizena hartu zuen. 1913an, dibortziatu egin ziren, eta Edith-ek Europan finkatu zuen behin betiko bizitokia, Parisen, kontinente zaharreko kulturarekiko lilurak bultzatuta; hala ere, Estatu Batuetara bidaiatzen eta han egonaldiak egiten jarraitu zuen beti. Bizitasun handiko emakumea zen, bisexuala, abenturazale amorratua eta ausarta, eta bizimodu sozial kosmopolita egin zuen; horren erakusgarri, Lehen Mundu Gerran, motortean bidaiatu zen frontean zehar, gerra kontatzeko, eta Gurutze Gorriarentzat lan egin zuen. Bere garaiko intelektual handien adiskidea izan zen, hala nola Henry James, eredu zuena, Francis Scott Fitzgerald eta Ernest Hemingwayrena.

1890eko hamarkadan poema eta kontakizun laburrak idazten hasi zen *Scribner's Magazine* aldizkarian, eta 1899an argitaratu zuen lehen liburua: *The Greater Inclination (Jaiera larriena)* kontakizun bilduma. Eleberrigintzan aurrez ere aritua zen arren, *The House*

*of Mirth* (*Alaitasunaren etxea*, 1905) lanak eman zion ospea, zeinaren protagonista baitira New Yorkeko gizarte bizitza itxurati eta itogarriko pertsonaiak, gerora idatzi zituen hainbat eleberritan bezala. Hain zuzen ere, Frantziara aldatu ondoren idatzi zituen eleberri gehienak, sorterriko kultura zapaltzaitetik ihes egin ondoren, baina, Estatu Batuetako goi mailako gizartetik urrun egon arren, haren inozokeriari eta harrokeriari buruzko kritika dute gai orokorra, eta ironiaren erabilera ezaugarri nagusietakoa. 1911n, *Ethan Frome* argitaratu zuen, bere lehen eleberri laburra, Ingalaterra Berrian kokatua, eta, ohi ez bezala, pertsona arrunten arteko maitasun istorio tragikoa kontatzen duena. Kritikari askoren aburuz, idazlearen gizarte eleberriei ez bezalako unibertsaltasuna dario eleberri horri, soilaren soilez. Whartonen obrarik ezagunena, nolana ere, *The Age of Innocence* da (*Xalotasunaren adina*, 1920). Harekin eskuratu zuen Pulitzer Saria 1921ean; sari hura irabazten lehen emakume idazlea izan zen.

Whartonek, garai hartako eta ondorengo garaie-tako emakume askok bezala, bere grina literarioen eta esparru pribatuaren eskakizunen arteko kontraesanen tentsioak bizi izan zituen, eta balioen arteko gatazkak halako intentsitate tragiko batez janzten ditu haren istorioak. Haren obretan, berebiziko garrantzia dute bizi esperientziek eta zorigaitz pertsonalek. Nortasun sendoko emakumea zen, aurreratua eta berezia bere garairako, baita gizonezko idazleentzat ere. Ironiaz eta arbuio agerikoaz deskribatu zuen gizarte victoriarra, kritikatzu pasiorik gabeko gizarte bat zela, kontraesanez

betea. Henry James adiskideak bezala, zeinak izan baitzuen eragin handia bere obran, emozioen joko so- tilean jarri ohi zuen Whartonek arreta, sentimenduen adierazpen librea ukatzen zuen gizarte batean.

Berrogei lanetik gora argitaratu zituen, poemak, kontakizun laburrak (mamuen kontakizun bikainak, esaterako), bidaia liburuak eta eleberriak, besteak beste, eta XX. mendeko literaturako orrialderik gogoanga- rrienetako batzuk utzi zituen horien artean.

Ameriketako Estatu Batuetako gobernuak Arteen eta Letren urrezko domina eman zion; lehen emakumea izan zen aitortza hura lortzen, eta orobat izan zen Yale- ko Unibertsitateak ohorezko titulua eman zion lehen emakumea (*honoris causa* doktorea, 1923an). 1993an, Martin Scorsesek *The Age of Innocence* obraren zinema- ko bertsioa estreinatu zuen, eta Whartonen obrarekiko interesa suspertu egin zen, best-seller bihurtzeraino.

## Ethan Frome

Edith Whartonek 1911n eman zuen argitara *Ethan Frome* eleberri laburra. Bertan, xehetasun, soiltasun eta fintasun handiz islatu zituen XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran bai Estatu Batuetan bai Europan gertatutako aldaketa sozialak. Hain zuzen ere, bere garaiko arazoekiko konpromi- soa izan zen idazlearen ezaugarri orokorretako bat. Eta, Whartonen obra nagusiki goi mailako klaseetan gertatutako aldaketa handien deskribapenagatik egin bazen ere ospetsu –esaterako New Yorkeko

klaseetan gertatuen deskribapenagatik, bera bertako kide baitzen—, orobat erakarri zuten haren arreta sektore apalenen eta ez hain sofistikatuak kezkek, besteak beste Ingalaterra berriko herrixketakoek, honako honetan ikus daitekeenez.

Landa eremuko herrixka batean gertatzen da istorioa, idazleak asmatutako Starkfield herrian, hain zuzen ere (Massachusetts). Maitasun istorio ezinezko bat kontatzen du, Ethan Frome gaztearen eta hura baino zenbait urte zaharragoa den Zenobia gaixobera eta mesfidatiaren arteko ezkon bizitza ilauna abiapuntu hartuta. Senar-emazteek ez dute seme-alabarik eta Mattie Silver, Zeenaren lehengusina gaztea, etxean hartzen dute neskame, umezurtza baita. Ethanen bizitza alaia eta zorionsua izateko itxaropen printzaz betetzen du Mattie ederrak, eta burura eramanezko maitasun bat sortzen da bien artean, amaiera tragikoa izateraino. Elementu horiek oinarri harturik, eleberri klasikoa osatu zuen Whartonek, etsipenak eta emozio debekatuek ezaugarritua.

Edith Whartonek berak adierazi bezala, Starkfield fikziozko herriaren zein bertako herritarren irudia idazleak Ingalaterra Berrian bizi izandako esperientzietan oinarritzen da. Gertaerak narratzaile anonimo batek aurkezten ditu; ez ditu narratzaileak zuzenean ikusi, ezta protagonisten ahotik jakin ere: egia dakitela dioten Starkfildeko herritar gutxi batzuen bitartez ikasten du istorioaren berri, flashback zabal baten modura.

Eleberri labur honetako bederatzi kapituluetan eta sarreran bertan, Edith Whartonek intentsitate



handiko tragedia eraikitzen du, gure arreta iraunkor-ki erakartzen duena hirugarren pertsonan kontatzen diren eszena guztietan. Hasieratik zaude jakin-minez zer gertatu ote zitzaien Ethan protagonistari eta haren emaztearen lehengusu Mattieri. Pertsonaia horiek egoera klaustrofobiko eta zapaltzaileei aurre egin behar diete; eta horrek giro guztiz itogarri eta kutsatua eragiten du, elkarrekin egon nahi duten guztietan sentitzen baitute begira dutela norbait.

*Ethan Frome* lanean, aditzera ematen zaigu pertsonaien ezaugarri fisikoak ez ezik horien indar psikologikoa ere, bakoitzak ondo baitaki zer aukera baliatu beharko lituzkeen nahi duena lortzeko, oztopoak oztopo. Ethan Fromek, Zeenak eta Mattiek triangelu arras interesgarria osatzen dute. Kapituluetan aurrera egin ahala, protagonistak, Ethanek, bere buruarekin borrokan dihardu: maite ez duen emaztea uzteko nahiaren aldera lerratzen da, batzuetan, eta, beste batzuetan, berriz, moralaren aginduak betetzeari amore ematen dio, emaztea zaindu behar duela uste baitu, hark bere gurasoak zaindu zituen bezalaxe. Kontrako aldean dago Zeena, emaztea: une oro saiatzen da senarraren arreta bereganatzen, nagusikeriaz, susmoa baitu lehengusinarekin liluratuta dagoela; irakurleak etengabe galdetzen dio bere buruari Ethan Fromen emaztea benetan gaixorik dagoen edo gaixo plantak egiten ari ez ote den, gailen ageri baita, biktima gisa baino gehiago. Mattiek, azkenik, Zeenaren kontrako ezaugarriak biltzen ditu; bizi pozez gainezka dago, eta

esker onez bizi da. Hiru pertsonaien artean halako giro artegarri deseroso bat sortzen da.

Sinbolismo handiko eleberria da, metafora ugarikoa. Mattiek, esaterako, kolore biziko soinekoak erabiltzen ditu, neskaren erakargarritasuna eta izaera irekia azpimarratzen dituztenak; aurrez aurre, Zeenaren hoztasuna eta sentimendurik eza daude, jantzi ohi dituen arropa ilunek nabarmenduak. Era berean, Ethan eta Mattie elkartzen diren lekuak elurraren zuri argitsuaz estalirik daude, bien arteko sentimenduen araztasuna sinbolizatuz. Aldiz, Zeena gaixobera eta kexatiarekin etxe ilun batean bizi da Ethan, eta Zeenaren katu beltzak, eremu itxi etsigarri eta irteerarik gabeari egiten dio erreferentzia. Istorio tristea, malenkoniatsua eta sentiberatasunez betea bizi dute, eta hirurak daude nahi ez luketen egoera eta giro behartu batean; apenas ikusten da halabeharrari ihes egiteko biderik. Klima ere muturrekoa da, negu gorrikoa, zeinetan bizi baldintzak baitira zailak; horri lotuta dago, orobat, moral zorrotza, giro itxi eta gogorra nabarmentzen dituen.

Hemen kontatzen den istorioa, beste norbaiten eskutan, erraz izan zitekeen melodrama bat edo maitasun istorio eskas bat. Whartonek, aldiz, balio literario handiko obra osatu zuen: atmosfera iradokitzaileak eta gozoak sortzen ditu hizkuntza zehatza eta zenbaitetan poesiatik hurbilekoa baliatuz, eta pertsonaiak, itxuraz soilak badira ere, nortasun handiz hornitzen ditu, introspekzio psikologiko nabarmenez.

*Miren Arratibel eta Aintzane Atela*

## AUTOREAREN HITZAURREA

Ingalaterra Berriko herri bateko bizimoduaz zertxobait ezagutzeko aukera izan nuen nire Starkfield asmatuaren konderri berean bitokia hartu baino askoz ere lehenago; baina han eman nituen urteetan askoz ere hurbilagoak gertatu zitzaizkidan bertako zenbait alderdi. Behin betiko inimiziaz haren aurretik ere, ordea, halako sentipen deseroso batez ikusi nuen eleberrietako Ingalaterra Berriak ez zuela antz handirik –antzekotasun botaniko eta dialektal lauso bat salbunik ezagututako lurralde malkartsu ederrarekin. Hango iratze, aster-lore eta mendiko ereinotzen aipu ugariak eta bertako hizkeraren erreprodukzio saiatuak berak ere irudipena sortzen zidaten granitozko azaleratzeak igaro zirela, kasu bietan ere, oharkabean. Inpresio hertsiki pertsonala da, baina *Ethan Frome* nire eleberria azaldu egiten du, eta, baliteke, irakurle batzuentzat, nolabait justifikatzea ere.

Kontakizunaren jatorriari buruz, hori da dena; ez dago hari buruz esateko beste ezer interesgarririk, haren eraikuntzari dagokionez izan ezik.

Aurrez aurre neukan arazoa hauxe zen, hasiera-hasieratik ikusi nuenez: gai bat neukan zeinaren klimax dramatikoa, edo, hobeto esanda, antiklimaxa

gertatzen baitzen tragediaren lehen ekitaldietatik belaunaldi batera. Baina denbora tarte beharrezko horrek eleberraren gaitzat Ethan Frome jartzen duela irudituko zitzaiokeen irakurleari, uste izatera, nik beti uste izan dudana bezalaxe, edozein gaik (hitz horrek eleberrigilearentzat duen zentzuan) inplizitu dituela bere forma eta dimentsio propioa. Inola ere ez zen hori nire asmoa, ordea, zeren aldi berean sentitu bainuen nire kontakizunaren gaia ez zela aldaera askorik txertatzeko aukera ematen dutenetakoa. Heldu behar zitzaion itzulingururik gabe eta labur, bizitza beti agertu zitzaien bezalaxe nire protagonistei; haien sentimenduak lantzeko edo konplikatzeko edozein ahaleginek osotasuna faltsutuko zukeen ezinbestean. Irudi haiek ziren, izatez, granitozko nire azaleratzeak; baina lurretik guztiz goratu gabeak, eta apenas adierazkorragoak.

Gaiaren eta planaren arteko bateraezintasun horrek itxuraz iradoki izango zukeen, agian, nire «egoera» baztertu beharra zegoela, azken batean. Eleberrigile orok izan ditu bisitari mamuak, iradokiz «egoera on» faltsuak, bere ontzia harkaitzetara erakartzen duten gai-sirenak; gehiago entzun ohi da haien ahotsa eta ikusten haiek erakusten duten ameskeria-itsasoa idazlea dabilelarik esku artean duen edozein obraren erdi bidean topatu ohi duen basamortu idorrean. Ongi baino hobeto nekien nik zer kantu kantatzen duten sirena horiek, eta askotan lotu nintzaion nire eginbehar aspergarriari sentitu arte haiek zeudela nire entzumenetik kanpo, koloretako

beren tulen artean beraiekin zeramatela, beharbada, betiko galduriko artelan bat. Baina ez nintzen haien beldur izan *Ethan Fromeren* kasuan. Lehen gaia zen heltzen niona zuen balioaz seguru, nire nahietarako behintzat, eta nik harengan ikusten nuena partez behintzat transmititzeko nuen gaitasunarekiko fede erlatibo batez.

Eleberrigile orok, berriro diot, bere arteari emana bada, topo egin izan du era honetako gairen batekin eta liluratu izan da haiek nabarmentasun osoan, baina, aldi berean, apaingarri erantsirik gabe eta janzkera edo argiztatze trukurik gabe aurkezteak zekarren zailtasunarekin. Horixe zen nire egitekoa, baldin eta Ethan Fromeren istorioa kontatu nahi banuen; eta oraindik erabat sinetsita nago nire eraikuntza eskema –zeinak jaso baitzuen berehalako eta baldintzarik gabeko arbuioa haren berri gainetik eman nien nire lagun apurrena– zeharo justifikatuta dagoela kasu honetan. Iruditzen zait, hain zuzen ere, ezen nolabaiteko artifizialtasuna atxiki ohi bazaio ere jende konplexu eta sofistikatuaren kontakizun bati zeinak imajinatzen eta interpretatzean baititu behatzaile sinpleak eleberrigilearen esku-hartzeari esker, ez dela zertan halako eragozpenik sortu baldin eta behatzailea bada sofistikatu eta hark interpretatzen duen jendea sinplea. Gai baldin bada jende horien inguruan den guztia atzemateko, ez zaio egiantzari kontra egingo, ezta gutxiago ere, gaitasun hori gauzatzen utzita; aski naturala da bitartekari ulerbera gisa jardutea bere pertsonaia bakunen eta haiek aurkeztu nahi dizkien espiritu konplexuagoen

artean. Baina aski agerikoa da hori guztia, eta ez du azalpenik behar, ez bada fikzioa konposizioaren arte gisa sekula hartu ez duten horientzat.

Nire eraikuntzaren benetako meritua xehetasun txiki batean datza, nire ustez. Aurkitu behar izan nuen bide bat nire tragedia modu aldi berean natural eta deskribatzailean narratzailearengana iristeko. Bannuen, jakina, narratzailea herriko kontakatiluren baten aurrean esertzea, hark hasi eta buka jar zezan istorio osoaren jakinean; baina hori eginda, faltsutu egingo nituzkeen nire erretratuaren bi osagai funtsezko: lehenik, deskribatzen saiatzen ari nintzen jendeen berezko uzkurtsun sakon errotua eta adierazteko ezintasuna, eta, bigarrenik, haien istorioa Harmon Gow eta Ned Hale andrea bezalako bi pertsona elkarren hain desberdinen begiradatik irits dakigun utzita sortzen den «biribiltasun» efektua (zentzu plastikoa esanda). Nire kronistetako bakoitzak narrazioan laguntzen du haien aburuz kasu konplexu eta misteriotsua den hori ulertzeko norberak duen gaitasunaren neurrian soilik; eta kontakizunaren narratzaileak bakarrik dauka ahalmen nahikoa dena ikusteko, sinpleki azaltzeko eta bere beste kategoria garrantzizkoagoen artean dagokion tokian kokatzeko.

Ez dut eskatzen inolako originaltasunik aitor diezadaten metodo bat erabiltzeagatik zeinaren adibide bikaina eman baitzidaten *La Grande Bretèche* eta *The Ring and the Book* obrek; nire meritua bakarra da, agian, igarri izana obra haietan erabilitako prozedura orobat aplikatu lekiokela nire kontakizun xumeari.

Analisi labur hau idatzi dut –nire liburuetako bati buruz orain arte argitaratu dudana lehena– iruditzen zaidalako, idazle batek bere obrari egindako sarrera denez gero, irakurleri baliagarria gerta dakioken gauza bakarra dela jakitea idazleak zergatik erabaki duen delako obra hori idaztea eta zer arrazoik eraman duen bere obra gorpuzteko unean forma jakin bat eta ez beste bat aukeratzera. Helburu nagusi horiek, esplizituki adieraz daitezkeen bakarrak, ia senez sentitu behar ditu artistak, eta esku hartu behar du bere sorkuntzan sartu baino lehen beste *zer* hori, *zer* neurgaitza, zeinak egiten baitu bizitza ibil dadin sorkuntza horretan barrena eta babesten baitu denbora batez dekadentziatik.

*Edith Wharton*

Edith Wharton

ETHAN FROME



Historia hau zatika-zatika jakin nuen, jende askoren ahotik, eta, halakoetan gertatu ohi den legez, historia desberdin bat zen aldiko.

Ezagutzen baduzu Starkfield, Massachusettsen, ezagutuko duzu hango postetxea. Ezagutzen baduzu postetxea, ikusiko zenuen Ethan Frome hara iristen, bizkar hondoratuko bere zaldi uherraren bridak askatzen eta urrats astunez zeharkatzen adreiluzko espaloia, zutabedi zuriraino; eta zure buruari galdetuko zenion nor ote zen.

Hantxe ikusi nuen nik ere lehenengoz, duela hainbat urte; eta harritu egin ninduen ikuskizunak. Starkfeldeko pertsonaiarik harrigarriena zen, artean, nahiz eta oso jausita zegoen. Nabarmen agerrarazten zuena ez zen altuera –luzangak izateak bereizten baitzituena, argi eta garbi, «bertatiarrak» eta atzerritar jende mozkoteagoak–, itxura indartsu axolagabea baizik, kate baten tiradizoak bezala urratsa mantsotzen zion herentasun bat gorabehera. Bazen zerbait goibela eta hurbilgaitza haren aurpegian, eta hain zegoen zurrun eta hain zuen ilea zuri, agure zahartzat hartu bainuen eta harritu baininduen berrogeita hamabi urte besterik ez zituela entzuteak. Harmon Gowek esan zidan,

burdinbidearen aurreko garaietan Bettsbridgetik Starkfielderako diligentziaren gidari izanak, zeinak ezagutzen baitzuen bere ibilbideko familia guztien kronika.

–Istripuaz geroztik dago horrela; eta otsailean beteko dira hogeita lau urte –esan zidan Harmonek, etenaldi oroitarazleen artean.

«Istripua» izan zen –berriemaile berarengandik jakin nuenez– kopetan orbain gorri hura marraztu ez ezik eskuineko aldean uzkuratu eta deformatu ziona, halako eran non ageriko ahalegina egin beharra baitzuen bere zalgurditik postetxeko leihatilarainoko urrats apurrak egiteko. Egunero joaten zen hara bere etxaldetik, eguerdi aldera, eta, ordu horretan joaten nintzenez ni ere neure postaren bila, maiz egiten nuen topo harekin portxean edo egoten nintzen haren alboan ilaran, burdin sareaz beste aldeko esku banatzailearen mugimenduei adi. Konturatu nintzen hutsik egiten ez bazuen ere ez zuela ia inoiz jasotzen *Bettsbridge Eagleren* ale bat besterik, begiratu ere egin gabe gordetzen zuena patrika erori batean. Aldian behin, ordea, postetxeko arduradunak gutun-azal bat ematen zion Zenobia –edo Zeena– Frome andrea-arentzat, ezkerreko goiko ertzean zuela, ongi agerian, botika-fabrikatzaile baten helbidea eta produktuaren izena. Dokumentu haiek ere begiratu gabe gordetzen zituen ilara hartako nire aldamenekoak, kopuruari eta motari erreparatzeko ohituegi balego bezala haiekin, eta postetxeko arduradunari buruaz agur keinu isil bat eginda alde egiten zuen.

Starkfielden denek ezagutzen zuten eta haren aurpegiera serioaren araberako agurra egiten zioten; baina errespetatzen zuten haren histura, eta aldian behin baino ez zitzaion bidera ateratzen herriko zaharren bat hitz erdi bat egitera. Halakoetan, patxadaz entzuten zuen, bere begi urdinak solaskidearen aurpegian iltzatuta, eta, hain isil erantzuten, non sekula ezin izaten bainuen haren hitzik aditu; gero, berriro zalgurdira baldarki igo, bridak ezker eskuaz hartu, eta etxalderantz abiatzen zen mantso-mantso.

–Istripu larria izan al zen? –galdetu nion Harmon-di, Fromeren irudia aldentzen ikusita eta pentsatuz zein lerdan ikusiko zen haren buru segail beltzarana, bere ile mataza argia eta guzti, haren sorbalda mardulen gainean, desitxuratzen hasi aurretik.

–Ikaragarritzkoa –baieztatu zidan nire berrie-maileak–. Edonor akabatzeko nahikoa. Frometarrak gogor askoak dira, ordea. Ehun urte harrapatuko ditu Ethanek.

–Jainko maitea! –esan nuen.

Une hartantxe, Ethan Frome bere eserlekuaren gainera igo, eta makurtu egin zen, egiaztatzeko ongi finkatuta ote zihoan zalgurdiaren atzeko aldean jarritako egurrezko kutxa bat, botikariaren etiketa zeramana hura ere, eta, aurpegia ikusi nion, bakarrik zegoela uste zuenean seguru asko izango zen bezalaxe.

–Gizon horrek ehun urte harrapatu? –esan nuen–. Dagoeneko hilda eta infernuan dagoela dirudi-eta!

Harmonek patrikatik tabako zati bat atera, puska bat moztu, eta bere masaileko zorro higituan sartu zuen.

–Esango nuke negu gehiegi igaro dituela Starkfield-en. Azkarrek alde egiten dute, gehien-gehienek.

–Zergatik ez zuen alde egin berak?

–Norbaitek gelditu beharko zuen zaharrak zainzera. Eta Ethan beste inor ez da izan etxe hartan sekula. Lehenengo, aita...; ama, ondoren...; emaztea, gero.

–Eta istripua, jarraian?

Harmonek irribarre garratz bat egin zuen.

–Hori da. Gelditu behar izan zuen, haren ondoren.

–Jakina. Eta harrezkero bera zaindu behar izan dute?

Harmonek masail batetik bestera pasatu zuen tabakoa, pentsakor.

–Tira, horri dagokionez: nik uste Ethanek zaindu dituela beti besteak.

Harmon Gowek bere gaitasun intelektualak eta moralak uzten zioten neurrian garatu zuen arren kontakizuna, ageriko hutsuneak zeuden hark kontutakoetan, eta irudipena izan nuen horretan zetzala historiaren sakoneko zentzua, historiaren hutsuneetan. Baina gogoan iltzatuta gelditu zitzaidan esaldi bat, eta huraxe erabili nuen nire aurreragoko ondorioak harilkatzeko ardatz gisa: «Esango nuke negu gehiegi igaro dituela Starkfielden».

Nire hango egonaldia amaitzerako ongi ikasia nuen zer esan nahi zuen horrek. Burdinbidearen, bizikletaren eta landako banaketa zerbitzuaren garai

endekatuan iritsi nintzen arren eta erraza zen arren, orduan, mendialdeko herririka barreiatuen arteko komunikazioa, eta haraneko herri handienek –Betts-bridge eta Shadd’s Falls– bazituzten arren liburutegia, antzokiak eta Kristau Elkartearen egoitzak, zeinetara jaitsi baitzitezkeen gazte menditarrak dibertitzera. Baina, negua Starkfieldera iritsi eta herria gelditu zelarik zeru hitsek amairik gabe berritzen zuten elur geruza batek estalita, konturatzen hasi nintzen nolakoa ote zen hango bizimodua –edo, hobeto esanda, haren ukazioa– Ethan Fromeren gaztaroan.

Nire ugazabek Corbury Junctioneko zentral elektriko handian lan bat egitera bidali ninduten hara, eta arotzen greba luze batek hainbeste atzeratu zituen lanak, non Starkfielden –zentraletik hurbileneko bizitokian– harrapatuta eman bainuen ia negu osoa. Hasieran, zapuztu egin nintzen, eta, gero, errutinaren eragin hipnotikoaren pean, halako atsegin ilun bat aurkitzen hasi nintzaion bizitzari. Nire egonaldiaren lehenengo partean, harritu egin ninduen klimaren bizitasunaren eta komunitatearen moteltasunaren arteko aldeak. Eguna joan eguna etorri, abenduko elurrak igarotakoan, argi eta haize boladak barreiatzen hasi zen zeru urdin itsugarri bat paisaia zurian, zeinak itzultzen baitzituen hark distira are biziagoaz. Pentsatzekoa zen giro hark emozioak nahiz odola bizkortuko zituela; baina ez zirudien inolako aldaketarik eragiten zuenik, ez bazen Starkfieldeko erritmo motela are gehiago makaltzea. Han denbora pixka bat gehiago neramala, ikusi nuelarik argitasun garden hari jarraitzen

zitzaizkiola eguzkirik gabeko hotzaldi luzeak, eta otsaileko ekaitzak ezartzen hasi zirelarik beren denda zuriak herri kondenatu hartan eta martxoko haizeen zalduneriak eraso jo zuelarik haiei laguntzeko, orduan ulertzen hasi nintzen zergatik ateratzen zen Starkfield sei hilabeteko setiotik baldintzarik gabe kapitulatzen duen goarnizio goseti baten moduan. Hogei urte lehenago askoz ere baliabide gutxiago bide zituzten irauteko, eta etsaiak bere mendean izango zituen herri setiatuen arteko komunikazio bide gehienak. Eta horiek guztiak kontuan hartuta, Harmonen esaldiaren indar ilunaz jabetu nintzen: «Azkarrek alde egiten dute, gehien-gehienek». Baina, hala izanik, nola zitekeen eragozpenen konbinazio batek, edozein zela ere, Ethan Frome bezalako gizon bati alde egitea eragozte?

Starkfieldeko nire egonaldian, Ned Hale andrea esaten zioten adin ertaineko emakume alargun baten etxean ostatu hartuta egon nintzen. Hale andrearen aita aurreko belaunaldiko herriko prokuradorea izan zen, eta «Varnum prokuradorearen etxea», non bizi baitzen nire etxejabea bere amarekin, herriko etxerik bikainena zen. Kale nagusiaren mutur batean zegoen, eta haren atari klasikoak eta leihate txikiekiko leihoek aldamenetan izeiak zituen bidexka zolatu batera ematen zuten, zeinak baitzeraman eliza kongregazionalistaren kanpandorre zuri lirainera. Bistakoa zen varnumtarren gainbehera, bi emakumeek ahal zuten guztia egiten zuten arren duin eta eratsu agertzeko, eta Hale andreak, bereziki, bazuen arren halako fintasun

ilaun bat bere etxe zaharkitu higuatari ezin hobeki zetorkiona.

Ettxeko «egongela bikainenean», Carcel lanpara borborkari batek ahul argiturik hango zaldi zurda beltza eta kaoba, Starkfieldeko kronikaren bertsio ña-bartuago eta sotilago bat entzuten nuen, gaua joan gaua etorri. Ned Hale andreak ez zuen sentitzen eta ez zuen itxuratzen ingurukoak baino gehiago zenik sozialki; baina sentiberatasun delikatuagoa edukitzearen eta apur bat ikasiagoa izatearen halabeharrak bizilaguneko sortu zuen tartea nahikoa zen haiek nolabaiteko urruntasunaz epai zitzan. Ez zen ahalmen hura baliatzeke uzkur, eta banuen itxaropena harengandik jasoko nituela Ethan Fromeren historiatik falta ziren datuak, edo, hobeto esanda, haren izaeraren gakoren bat, jada ezagutzen nituen datuak antolatzeke aukera emango zidana. Hale andrearen gogoia pasadizo kaltegabeen gordailu zen, eta itzelezko xehetasun sorta zekarren haren ezagunei buruzko edozein galderak; Ethan Fromeren gaiari buruz, aldiz, harrigarriki iheskor topatu nuen. Ez zegoen haren uzkurtasunean gaitzespenaren arrastorik; soilik sumatu nion gizonaz edo haren kontuez hitz egiteko halako erreparo gaindiezin bat, eta «Bai, biak ezagutzen nituen... Izugarria izan zen...» isil bat zen, itxuraz, haren estutasunak nire jakin-nahiari egin ziezaiokeen kontzesio bakarra.

Hain nabarmena izan zen haren portaeraren aldaketa, halako inimizio triste sakona adierazten zuen, non, nire zuhurtziari buruzko zalantza batzuekin bazen ere, herriko nire orakulu Harmon Gowren eskuetan

jarri bainuen kasua berriro; baina marmar ulergaitz bat jaso nuen nire eginahalen ordain bakartzat.

–Ruth Varnum arratoiak berak bezain urduria izan da beti. Eta, pentsatzen jarrita, bera izan zen haiek jaso zituztenean ikusi zituen lehena. Varnum prokuradorearen etxe azpian gertatu zen, Corburyko bideko bihurgunean, Ruthek Ned Haleri ezkon-hitza eman zion garaitsuan. Gazteak lagunak ziren, denak, eta pentsatzen dut ezingo duela jasan horri buruz hitz egitea. Nahiko arazo izan ditu berak ere bizitzan.

Starkfieldeko biztanle guztiek, komunitate gailenagoetakoek bezalaxe, nahikoa arazo izan zituzten auzokoenez arduratzeko; eta denek aitortu arren Ethan Fromerenak neurritik gorakoak zirela, inork ez zidan argitu haren aurpegiko keinuaren zergatia, zeina jarraitzen bainuen pentsatzen ezin zela izan ez pobreak ez sufrimendu fisikoak marraztua. Nolanahi ere, amore emango nukeen arrasto haiek batuz berrosatutako istorioarekin, izan ez balitz Hale andrearen isiltasunaren probokazioagatik eta handik gutxira Ethan Fromerekin berarekin halabeharrez izan nuen hartu-emanagatik.

Starkfieldera iritsi nintzenean, Denis Eady irlandar dendari aberatsa, Starkfielden alokairuko zalgurdientzako zaldi ukuilu baten antzik handiena zuen barnearen jabea bera, gelditu zen egunero eramango ninduela Corbury Flatsera, han hartu behar bainuen Corbury Junctionera joateko tren. Neguaren erdialde-  
ra, ordea, eskualdean zabaldutako izurri batek Eadyren zaldia gaxotu zituen. Gaitza Starkfieldeko gainerako



ukuiluetara zabaldu zen, eta egun bat edo bi igaro nituen beste garraibiderik topatu ezinik. Orduan, Harmon Gowek iradoki zidan Ethan Fromeren zaldi uherra osasuntsu zegoela artean eta pozik eramango ninduela haren jabeak akaso.

Harrituta utzi ninduen iradokizunak.

–Ethan Fromek? Ez dut harekin sekula hitz erdirik egin-eta. Zer arraiogatik hartu behar zuen halako lanik niregatik?

Are gehiago harritu ninduen Harmonen erantzunak.

–Ez dakit, baina badakit gustura asko hartuko lukeela dolar bat.

Esana zidaten Frome pobrea zela, eta haren etxaldeko zerrategiak eta akre idorrek nekez ematen zutela neguan etxea aurrera ateratzeko, baina ez nuen pentsatu Harmonen hitzek adierazten zuten adinako premiarik izango zuenik, eta harridura adierazi nuen.